

## OLIO BILKETARAKO EDUKIONTZIA

### HEMENDIK AURRERA, SUKALDEKO OLIOA EDUKIONTZI LARANJARA

Puntu berde mugikorra, beste zerbitzu batzuk ez bezala, ezin da erabili urteko 365 egunetako 24 orduetan. Egutegi eta ordutegi finko batean, furgoneta, udalerriko hainbat zonatan geratzen doa, herritarrek entregatutako hondakinak biltzeko.

Orain, sukaldeko olioaren birziklapena errazteko asmoz, Tolosaldeko Mankomunitateak, furgonetaren ordeztu, edukiontzi berri bat jarriko du datozen egunotan; **laranja kolorekoa**.



Sukaldeko olioaren soilik jasoko duen edukiontzi berria

Hona hemen aholku batzuk edukiontzi laranjaren erabilera egokia egiteko:

- Zein hondakin bota dezakegu? **Bakarrik sukaldeko olio.**
  - Nola? **Plastikozko ontzi itxi batean.**
  - Non egongo da edukiontzi naranja? **Pilotalekuko zabor edukiontzien ondoan**
- **Zergatik birziklatu behar da sukaldeko olio?** Olioaren harraskatik behera botatzea, ingurumenarentzako kaltegarria da: ur zikinen hodiak ixten ditu, arratoientzako janari da, ibaietako landaredia akabatzen du eta ur araztegiatan arazoak sortzen ditu.
  - **Zer egiten da jasotako olioarekin?** **Biodiesela** deitzen den autoentzako erregaia egiten da. Erregai honen isurketek, gasolioarenak baino kalte Edozein argibiderako Tolosaldeko Mankomunitatearekin harremanetan jar zaitezke, 943 67 62 16 telefonoan.

Edukiontzi hau jarri ondoren, Udalak zabor bilketarako hiru gune zehaztuko ditu birziklaketa bultzatzeko asmoarekin:

1. **Gunea:** Herriko Plazan: Bertan zaborrontzi guztiak egongo dira. Gune honetatik kanpo dauden zabor organikoen bilketako ontziak kendu egingo dira.
2. **Gunea:** Herriaren irteeran, Beobide-gain inguruan: Papera, plastiko, beira eta zabor organikoen bilketako ontziak.
3. **Gunea:** Larrunbideko bidegurutzean: Zabor organikoen bilketako ontzia.

Besterik gabe, aldaketa hauek herriaren onurako eta ingurugiroaren babeserako izango direlakoan agurtzen naiz.

Larraulen, 2009ko urtarrilaren 27an.

Alkateak